

KILOMETROAK 2009

# 100.000 eztarri Mikel Laboaren txoriarentzat

JAIALDIAN BILDUTAKO LAGUNEK IAZ HILDAKO ABESLARIAREN 'TXORIA TXORI' KANTATU ZUTEN

Zurriola-Barandiaran ikastolako guraso, ikasle eta irakasleek ere omenaldia jaso zuten atzoko egun handian

**A. ZABALETA**

DONOSTIA. Festa egun handian, une hunkigarri batzuk izan ziren eta, dudarik gabe, 12.30ean bizi izan zen horietako bat. Ibilbide guztiko megafoniak Mikel Laboaren *Txoria Txori* ezaguna zabaldu zuten. Laboaren ahotsa jarraituz, milaka euskaltzale batu zitzaizkien bozgorailuei, ume, gazte zein heldu, duela urtebete hildako abeslariaren omenez ahotsa altxatzeko beldurrik gabe.

Kantatu zutenen artean, minutu batzuk lehenago Kurasaaleko Kubo aretoan izandako ekitaldian parte

hartu zutenak. Bertan, Zurriola ikastolako arduradunek, besteak beste, guraso, ikasle eta irakasle guztiak omendu zituzten.

“Hasieran ni ez nintzen egon, orain banago baina bihar ere ez naiz egongo. Baina Zurriola ikastolak bai, hor jarraituko du”, azaldu zuen bertako presidenteak, Joxe Mari Eizmendik. Hala, hezkuntza proiektua aurrera eramateko ezinbestekoak diren hiru taldeei errekonozimendu berezia eskaini zieten, eta taula gainera guraso, ikasle eta irakasleak igo zituzten.

Talde bakoitzaren ordezkariak Manu Muniategiandikoetxea artista bergararrak egindako koardro bana banatu zieten, txalo artean. Izan ere, ikastolako lagun asko izan ziren Kurasaalen bildu zirenak, ibilbidea edo antolakuntza lanak une batez utzita.

**PIANO EMANALDIA** Ikastolak urte guztia nola bizi duen erakusteko bideo bat ere prest zuen Zurriolak, baita ikasle ohi baten eskutik eskainitako piano emanaldi bikaina ere, ekitaldiari hasiera zein amaiera emateko.

Omenaldi laburra izan zen hala ere, guztiak 12.30ean kalera irten eta Mikel Laboa gogoratzeko ekimenen parte hartu nahi baitzuten. Kurasaalen sarreran bildu eta megafonia jarraituz, ibilbide guztian zehar zeuden beste milaka lagunekin batera *Txoria Txori* abesteari ekin zioten.



Kilometroetan izan zirenak 'Txoria txori' kantatzen. ARGAZKIAK: I. AZURMENDI



Kurasaaleko ekitaldian, Zurriolako ikasle ohi batek jo zituen pianoan Laboaren doinuak.

## “Zorterikan onena opa dizueguna”

ZURRIOLA IKASTOLAK  
**PASAIA-LEZO LIZEOARI**  
EMAN ZION LEKUKOA 2010EKO  
FESTA ANTOLATZEKO

DONOSTIA. “Zorterikan onena opa dizueguna”. Bertsotan egin zieten harrera Zurriola ikastolako arduradunek Pasaia-Lezo Lizeoko lehendakari eta zuzendariari. Izan ere, festa egun handian eta urtebeteko lanaren ondoren, haiei pasa zieten atzo lekukoa datorren urteko Kilometroak festa antolatzeko. Arantza Manterola Gipuzkoako Ikastolen Elkarteko

presidenteak eman zien testigua Kurasaaleko Kubo aretoan egindako ekitaldian.

“Ilusioz hartzen dugu erronka, indartsu eta kementsu”, esan zuen Pasaia-Lezo Lizeoko Junkal Mintegia lehendakariak, lekukoa eskutan zuela.

Hori lortzeko, eta gaur bertan hasita, urtebete luze dute oraindik prestakuntza lanetarako. Hori bai, festa eguna borobiltzeko eta atzokoa bezalakoa izateko, aurtun bezala eguraldi ona enkargatuko dutela Pasaia eta Lezorentzat agindu zien Zurriola-Barandiaran ikastolako lehendakari Joxe Mari Eizmendik. >**A.Z.**



Arantza Manterola eta Zurriolako arduradunak, Pasaia-Lezokoei lekukoa ematen. ARGAZKIA: IKER AZURMENDI